

Maiatzak 1: Burujabetza osoa aldaketa sozialerako

Langileok euskal estatua

Aurtengo hau izan daiteke garai berri baten atariko Maiatzaren Lehena. Euskal Herrian eta gure mugetatik harago ematen ari diren gertakariak aukera berriak zabaltzen dituzte: Catalunya deskonexio prozesua, gurean armagabetze prozesua, mugimendu independentista berri eta berritzailea eraikitzeke egin den apustua, euskal sindikatuen artean elkarlana berreskuratzeko hasi dugun bidea... estatus politikoak berritzeko ekimenak martxan diren honetan, Euskal Herrian burujabetza prozesua abiatzeko baldintzak badaude. Egin beharreko bidea eta emaitzak lehiatzea dagokigu orain.

[Jarraitu irakurtzen ->](#)

